# Peru Abarka eta Maisu Juan burdinolari buruz berba egiten (1802)



**J.A. Mogelen obra nagusiak, Peru Abarca, 1881. urtean ikusi zuen argia. Balio handiko liburua da, batez ere etnologia eta kultura aldetik, garaiko bizitza tradizionalaz ikuspegi zehatza ematen baitu. Irakurri burdinolako langileei buruz idatzi zuena eta alderatu hiru euskara ezberdin hauek!**

### JATORRIZKO TESTUA

**Peru Abarca:** Urtzalliac bete biar dau suteguija miaz; ezarri biar dan icatza, ta eguin biar dan guztija, agoia aterateco prestau artian. Auspuac gueratu ta atala gorituten imini, ta ecin esan beste cereguin ditu suteguijan. Lagunduten deutsee agoia su azpiti ateraten ijela ta gatzamalliac, bacochac bere burdinaga edo palanquiaz. Ateraten dabee suteguiti aguirira, ez icerdi tanta, ta bero asco botabaga. Botaten dabee beera, ta chiriquiña edo burdin cato bat iraatsiric, darue gabipera.

### R. M. DE AZKUEK EGOKITUTAKO TESTUA

**Peru Abarca**: Urtzalliak bete biar dau sutegija miaz; ezarri biar dan ikatza, ta egin biar dan guztija agoia aterateko prestau artian. Auspuak geratu ta atala gorituten imini, ta ezin esan beste zeregin ditu sutegijan. Lagunduten deutsee agoia su azpiti ateraten ijela ta gatzamalliak, bakotxak bere burdinaga edo palankiaz. Ateraten dabee sutegiti agirira, ez izerdi tanta ta bero asko bota baga. Botaten dabee beera, ta txirikiña edo burdin kato bat eraatsirik darue gabipera.

### BATUERAZKO TESTUA

**Peru Abarca**: Urtzaileak bete behar du sutegia meaz; ezarri behar den ikatza, eta egin behar den guztia agoa ateratzeko prestatu artean. Hauspoak geratu eta atala goritzen ipini, eta ezin esan beste zeregin ditu sutegian. Laguntzen diote agoa su azpitik ateratzen ijela eta gatzamaileak, bakoitzak bere burdinaga edo palankaz. Ateratzen dute sutegitik agerira, ez izerdi tanta eta bero asko bota gabe. Botatzen dute behera, eta txirikina edo burdin katu erantsirik daroate gabipera.




El Pobaleko burdinola (Muskiz)

# Burdinolan euskara landuz




Hasiera batean, burdinolak (haizeolak) mendian izaten ziren, baina XIV. mendean uraren indarraz baliatzen hasi eta olagizonak ibai ertzetara jaitsi ziren. Bi burdinola-mota bereizten ziren: handiak edo zeharrolak (12-15 arroako totxoak urtzekoak) eta txikiak edo tiraderak (5 arroa inguru-koak urtzekoak). Euskal burdinolek XVI. mendean izan zuten garairik oparoena, baina XVII. mendetik aurrera gainbehera etorri ziren. Hala ere, XIX. mendera arte iraun zuten.



# Hiztegi berezia

**Ola**: fabrika. **Burdinola**: burdin minerala landu eta burdina lortzen zen antzinako lantegia. **Burdingai**: burdina ateratzen den mea. **Burdingintza**: burdinaren industria. **Burdina**: gai bakuna, metal grisa, 1535º C-tan urtzen dena, gogorra eta, gori dagoela, lantzen erraza. **Agoa**: burdin mea eta egur ikatza labean egosterakoan lortzen den esponja antzeko orea. **Erredukzio prozesua**: egur ikatzak sutan askatzen duen karbono monoxidoari esker burdin minerala metal bilakatzen duen prozesua. **Haizeola**: mendietan gora kokatutako antzinako labeak. **Ikazkin**: egurra egur-ikatz bihurtzen zuen langilea. **Txondorra**: egur-ikatza lortzeko, egurrak pilatu ondoren, orbelez, goroldioz eta lurrez estaltzen den kono itxurako labea. **Gabia**: lortutako burdin ore edo agoari forma emateko erabiltzen zen mailua. **Ingudea**: gabiaren azpian lan egiteko erabiltzen den burdinazko pieza. **Hauspoak**: labeari haizea ematen dioten tresnak. **Olagizon**: burdinolako langilearen izena. **Errotarri**: errotan alea ehotzeko erabiltzen den harri biribila. **Errotari**: errotan lan eginez bizibidea ateratzen duena. **Arroa**: pisuneurri zaharra (gaur egun, harri-jasotzaileen artean, hamabi kilo eta erdiko balioa du).





# Atsotitz batzuk

Gotzon Garatek bildutako hainbat atsotitzen artean gure museoaren edukiekin zerikusia duten batzuk hemen azaltzen dizkizuegu. Esaterako...

- Bere gogoz **errotarria** eraman; aginduta, otarrakada bat egur ezin.
- Batzuk garia, beste batzuk **errotarria**.
- Gu hilda gero ere astoak **errota**ra joango dira.
- Joandako urak **errota** ibili ez.
- Goiz gorri, **errotari**; arrats gorri, pelotari.
- San Migelek **ola errotak** hazi.
- Etorkizuneko **olak** burnirik ez.
- **Ola**tik berri onik ez.
- Ola **olagizonentzat**, eta barka barkamaisuarentzat.
- **Errementaria**ren etxean, zotza burruntzi.
- Ez den lekutik erregek **errementaririk** ez.
- Nolako **irina**, halako ogia.

# Errota




**El Pobaleko burdinola** (Muskiz) **Tfnoa: 629271516 E-mail: info@elpobal.com Web: www.bizkaia.net/elpobal**